

Akta 5/2019

**HERRITARGOAREN INFORMAZIO-
BATZORDEAK 2019KO IRAILAREN 19
AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR
LA COMISIÓN INFORMATIVA DE
CIUDADANÍA EL DÍA 16 DE DICIEMBRE
DE 2019.**

BILDUTAKOAK

ASISTENTES:

BATZORDEBURUA:

PRESIDENTA:

KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

BATZORDEKIDEAK:

VOCALES:

(Jnak./Andk.)

(Sras./Sres.)

AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ-PNV)
ARANTZA RICA ALVAREZ (EAJ-PNV)
IRANTZU URIARTE GOMEZ (EAJ-PNV)
IÑIGO URKITZA YAÑEZ (EAJ-PNV)
FRANCISCO JAVIER ELORZA HORMAECHE (PP)
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA (PP)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EH BILDU)
CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU)
ASUNCIÓN OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA (PSE-EE)
PAULA AMIEVA CLEMENTE CLEMENTE (ELKARREKIN PODEMOS)

IDAZKARIA

LA SECRETARIA

LARRAITZ ABERASTURI IBARRA andrea

Udaletxeko Osoko Biltzar-aretoan, 2019ko irailaren 19an, Herritargoko Informazio-Batzordea bildu da, 11:10etan, Keltse Eiguren Alberdi andre zinegotzia batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a 16 de diciembre de 2019, se reúne a las 11:25 la Comisión Informativa de Ciudadanía bajo la presidencia de la concejala doña Keltse Eiguren Alberdi, con asistencia de los corporativos expresados.

Lehendakariak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez,

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión,

Akta 5/2019

bilkura hastea erabaki du. Horrela, deialdiko Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

1.- 2019KO APIRILAREN 16AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.

Aho batez onartu da aurreko bilkurako akta, 2019ko azaroaren 21ekoa.

1.- ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA.

2.1.- SUTEAK PREBENITZEKO KANPAINA

Batzordeburuak jakinarazi du udala etxeko segurtasunari buruz egiten ari den kanpaina bat dela, herritarrak suteen prebentzioan sentsibilizatzeko eta su-itzalgailuen erabilera ezagutarazteko. Kanpaina horretan stand simulatzaile batean suteak itzaltzeko tailer praktikoa egingo da abenduaren 16an eta 17an Algortako Geltoki Plazan, eta abenduaren 18tik 20ra bitartean, berriz, Areetako Bizkaia Zubiaren plazan. Halaber, esan du kanpaina hori udalaren Babes Planaren barruan sartzen dela, eta horren berri eman zaiola Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari.

2.2.- GETXO ENPRESA ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Iñigo Urkitza Yañez jaunak jakinarazi du abenduaren 18an, Tamarisesen, Getxo Enpresako erakusleihen lehiaketako sari banaketa egingo dela eta bilerara bertaratu direnak gonbidatuta daudela.

pasándose a tratar los temas incluidos en el Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR DE FECHA 17 DE JULIO DE 2019.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 21 de noviembre de 2019.

2- INFORMACIÓN GENERAL DEL ÁREA.

2.1.- CAMPAÑA DE PREVENCIÓN DE INCENDIOS

La Presidenta informa de la campaña de seguridad en el hogar que el Ayuntamiento está llevando a cabo con el objetivo de sensibilizar a la ciudadanía en la prevención de incendios y dar a conocer el uso de extintores mediante un taller práctico de extinción de incendios en un Stand simulador, que tendrá lugar los días 16 y 17 de diciembre en la Plaza de la Estación de Algorta, y los días 18 a 20 de diciembre en la Plaza Puente de Bizkaia de Las Arenas. Añade que esta campaña se enmarca dentro del Plan de Protección municipal, y que se ha dado traslado del mismo a la Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco.

2.2.- ENTREGA DE PREMIOS DEL CONCURSO DE ESCAPARATES DE GETXO ENPRESA

Iñigo Urkitza Yañez informa que el 18 de diciembre tendrá lugar en Tamarises la entrega de premios del concurso de escaparates de Getxo Enpresa, al que están invitados todos los presentes.

Akta 5/2019

2.3.- ENPRESEN KONTSULTA-FOROAREN KRONOGRAMA

Iñigo Urkitza Yañez jaunak adierazi du korporazioko kideei Enpresen Kontsulta-Foroan egin beharreko jardueri buruzko informazioa bidali zaiela, eta bertaratutakoek parte hartzea nahi dela.

Erreguen eta galderen puntuan sartu aurretik batzordeburuak jakinarazi du Herritarren Segurtasunerako Arloa segurtasun eta zaintzarako Gabonetako kanpaina egiten ari dela jende gehien biltzen den eremuetan; kanpainaren helburua delitu edo arau-hauste izan daitezkeen ekintzak saihesteko eta bezeroen eta saltokien segurtasuna bermatzeko prebenitzea da eta esan du udaltzain gehiago jarri direla, oinez eta ibilgailuz.

3.- ESKE-GALDEAK.

3.1.- PP: GALDERA, ABENDUAREN 3AN IBILGAILUAK LAPURTU IZANA TWITTERREN SALATZEARI BURUZKOA.

F. Javier Elorza Hormaeche jaunak galdera irakurri du.

Batzordeburuak adierazi du ez dela ohikoa txio bat argitaratzea eta informazio-batzordean horri buruz erantzun behar izatea; hori adierazi ondoren gaiari buruzko informazioa eman du.

Azaldu duenez, abenduaren 3an, 8:58an, Udaltzaingoak dei bat jaso zuen. Dei horren bidez herritar batek jakinarazi zuen autoaren leihatila hautsi ziotela, eta ez zekiela nor zen eragilea. Informazio horren aurrean, Udaltzaingoko agenteak esan zion salaketa jar zezakeela Udaltzaingoan edo Ertzaintzan, eta dagokion aseguruari horren berri eman.

2.3.- CRONOGRAMA DEL FORO CONSULTIVO DE EMPRESAS

Iñigo Urkitza Yañez indica que se ha remitido a los corporativos información de las actividades a realizar en el foro consultivo de empresas, señalando que se cuenta con la participación de los presentes.

Antes de entrar en el punto de ruegos y preguntas, la Presidenta informa que desde el Área de Seguridad Ciudadana se está llevando a cabo la campaña navideña de seguridad y vigilancia en zonas de mayor afluencia de gente, con el objeto de prevenir la comisión de posibles actos delictivos o constitutivos de infracción y garantizar la seguridad de la clientela y de los comercios, habiéndose incrementado los efectivos de la Policía Local a pie y en vehículo.

3.- RUEGOS Y PREGUNTAS

3.1.- PP: PREGUNTA RELATIVA A DENUNCIA EN TWITTER DE ROBO DE VEHICULOS EL DIA 3 DE DICIEMBRE.

F. Javier Elorza Hormaeche da lectura a la pregunta.

Tras indicar la Presidenta que no es habitual que se publique un tweet y se tenga que contestar sobre ello en comisión informativa, procede a dar la información al respecto.

Expone que a las 8:58 horas del 3 de diciembre se recibe una llamada en la Policía Local mediante la que una ciudadana comunica que le han roto la ventanilla de su coche, sin que haya autor conocido. Ante esta información el agente de la Policía Local le indica que puede formular denuncia ante la Policía Local o la Ertzaintza y proceder a

Polizia gertakarien lekura joango ote zen galdetu ziotenean, agenteak ezetz erantzun zion, agenteak ikastetxeetan lanak egiten ari direlako eta horri buruzko beharrezko jarraibideak eman direlako.

Batzordeburuak azalpena amaitu du eta adierazi du Udaltzaingoak behar bezala erantzun zuela.

3.2.- PP: GALDERA, UDALTZAINGOARI USATEGI KAFETEGIKO SUTETARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKATUZ. SARRERA ERREGISTROA: 39575.

F. Javier Elorza Hormaeché jaunak galdera irakurri du.

Galdera horri erantzun aurretik, batzordeburuak adierazi du beste galdera bat egin duela EH Bildu taldeak gertakari bereberri buruz eta, beraz, idazkiak aurkeztu diren ordenaren arabera erantzungo dituela.

Usategi kafetegian izandako sutean ez zela inor zauritu erantzun du, eta gertakariaren arabera ez zegoela inor eraikinaren barruan. Eragindako kalteei dagokienez, gehitu du Udal Eraikinen arduraduna Suteak Itzaltzeko Zerbitzuaren txostenaren zain dagoela, eta helarazi dioten oharren datan, hau da, abenduaren 12an, eraikina jada hormaz itxita dagoela. Sutea itzaltzeko behar izan zen denborari dagokionez esan du suhiltzaileak 21:41ean iritsi zirela eta sutea 22:00etan kontrolatu zutela.

3.3.- PP: UDALTZAINGOAK LANDAREEN LAPURRETA-SALAKETARI DAGOKIONEZ IZAN DUEN JOKABIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKATUZ. SARRERA ERREGISTROA: 39579.

dar parte al seguro correspondiente. Ante la pregunta de si va a acudir la policía al lugar de los hechos, el agente contesta que no, ya que los agentes están desempeñando las tareas en los colegios y ya se han señalado las indicaciones oportunas.

La Presidenta finaliza su exposición indicando que la Policía Local dio respuesta cumplida.

3.2.- PP: SOLICITANDO INFORMACIÓN DE LA POLICÍA LOCAL SOBRE INCENDIO EN CAFETERÍA USATEGI. REGISTRO DE ENTRADA: 39575.

F. Javier Elorza Hormaeché lee la pregunta.

Con carácter previo a responder a la misma, la Presidenta señala que hay otra pregunta sobre los mismos hechos presentada por EH Bildu, por lo que procederá a dar respuesta en orden a la presentación de los escritos.

Contesta que no ha resultado herida ninguna persona en el incendio de la cafetería Usategi y que según la incidencia obrante no había nadie en el interior del edificio. Respecto a los daños producidos, añade que la persona responsable de Edificios Municipales está a la espera del informe del Servicio de Extinción de Incendios, y a la fecha de la nota que le han trasladado, 12 de diciembre, el inmueble ya ha sido tapiado. Respecto al tiempo de respuesta en sofocar dicho incendio, señala que los bomberos llegaron al lugar a las 21:41 horas y el incendio fue controlado a las 22:00 horas.

3.3.- PP: SOLICITANDO INFORMACIÓN SOBRE LA ACTUACIÓN DE LA POLICÍA LOCAL ANTE LA DENUNCIA DE ROBO PLANTAS. REGISTRO DE ENTRADA: 39579.

Akta 5/2019

F. Javier Elorza Hormaeche jaunak galdera irakurri du.

Batzordeburuak jakinarazi duenez, deia jaso zuen Koordinazioko agenteak deia egin zuenaren hitzen arabera gertaerak gertatu ziren eremurako dauden kamerak ikusi eta aztertu zituen eta ez zuen inor ikusi gizalegearen aurkako ekintzak egiten edo kalteak eragiten. Hori dela eta aldera ez zen patruillarik bertaratu.

Azpimarratu du, nolana ere, gertakariak ebasketa izango lirakeela, eta ez lapurreta, eskatutako bitartekoak bere neurrian jartzeko.

F. Javier Elorza Hormaeche jaunak galdetu du ea Udaltzaingoak Twiterrera sarbiderik duen. Batzordeburuak erantzun du ez direla sare sozial horretara sartzen euren polizia-lanak egiteko.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak esku hartu du eta adierazi du ez duela uste Twitter denik salaketa jartzeko foro egokia, baina uste duela Udaltzaingoak balioa eman beharko liokeela sare sozialetan jasotako informazioari, txioan identifikatu egiten zelako ustez landareak hondatu zituen ibilgailuaren matrikula.

Batzordeburuak nabarmendu duenez soilik adierazi du Udaltzaingoa ez zela gertakarien tokira joan azaldutako arrazoiengatik, baina ez du adierazi ostean ikerketa-lanik egin ez denik. Lan horiek benetan egin ziren eta ibilgailuaren titularra identifikatu zen, baina ez gertakarien eragilea.

3.4.- ELKARREKIN PODEMOS: GALDERA, AZAROAREN 7AN IZANDAKO GERTAKARIEI BURUZKOA. SARRERA ERREGISTROA: 39665.

F. Javier Elorza Hormaeche da lectura a la pregunta.

La Presidenta informa que el Agente de Coordinación que recibió la llamada visionó las cámaras que se disponen hacia la zona en la que según la comunicante se habían producido los hechos y no observó ninguna persona realizando acto incívico o destrozos, razón por la que no se trasladó ninguna patrulla a la zona.

Hace hincapié en que en todo caso los hechos serían constitutivos de un hurto y no de un robo, para poner en su justa medida los medios exigidos.

Ante la pregunta de F. Javier Elorza Hormaeche de si la Policía Local tiene acceso a Twiter, la Presidenta contesta que no acceden a esta red social para realizar sus labores policiales.

Ibon Rodriguez Larrinaga interviene para indicar que si bien no considera que Twitter sea el foro adecuado para denunciar, considera que la policía local debería dar valor a la información recogida en las redes sociales, en la medida en la que en el Twett se identificaba la matrícula del vehicula supuestamente causante de los destrozos de las plantas.

La Presidenta destaca que únicamente ha manifestado que la Policía Local no acudió al lugar de los hechos por las razones expuestas, pero no ha indicado que no se hayan realizado labores de investigación, que efectivamente se realizaron, identificando al titular del vehículo pero no al causante de los hechos.

3.4.- ELKARREKIN PODEMOS: PREGUNTA SOBRE HECHOS OCURRIDOS EL DÍA 7 DE NOVIEMBRE. REGISTRO DE ENTRADA: 39665.

Akta 5/2019

Galdera irakurri aurretik, batzordeburuak aldez aurreko bi galdera egin ditu: lehenik eta behin, jasotako erantzunetan eta dokumentazioan oinarrituta Harribideri buruzko kontsultak egiten direla adierazten duen galdera kontuan hartuta, Keltse Eiguren Alberdi andreak Elkarrekin Podemosi galdetu dio ea udalak talde horri emandako dokumentazioa Harribideri helarazi zaion. Paula Amieva Clemente andreak erantzun du dokumentazioaz hitz egin duela haiekin, baina fisikoki ez zaiela helarazi. Batzordeburuak erantzun dio talde politikoari emandako dokumentazioa ez litzaiekeela Udaltzatik kanpoko pertsoneri eman behar.

Bigarrenik, batzordeburuak galdetu du ea galdera irakurtzean bertan agertzen diren izen-abizenen informazioa emango den, eta adierazi du argi utzi nahi duela udalak Elkarrekin Podemosi emandako dokumentazioan izen-abizenak ezabatu zirela eta, beraz, tokiko erakundeak eman ez zituen datuak direla. Gaineratu duenez izen-abizenen informazioa emanez gero, galdera irakurtzen duen zinegotziaren erantzukizuna izango dela eta horrek datu pertsonalak babesteko legea haustea ekar lezakeela eta, beraz, pertsonen intimitate-eskubideak urratzea.

Paula Amieva Clemente andreak batzordeburuaren ohartarazpena tonuz kanpo dagoela eta mehatxua dela uste du, eta adierazi du bere galdera abenduaren 5ean erregistratu zela; beraz, 11 egun egon dira inpresio edo uste horiek berari helarazteko, baina ez du hori egin. Adierazi du bere taldeak batzorde honi zuzentzen dizkiola Harribidek helarazitako kontsultak, salatutako gertaeren errealitatea argitzearen ondoretarako, eta pertsonen izen-abizenak adierazten badira, haien baimena dutelako

Antes de dar lectura a la pregunta, la Presidenta plantea dos cuestiones previas: En primer lugar, a tenor de la pregunta presentada que indica que se trasladan consultas de Harribide en base a las respuestas y la documentación recibida, Keltse Eiguren Alberdi pregunta a Elkarrekin Podemos si la documentación entregada a este grupo por el Ayuntamiento ha sido trasladada a Harribide. Paula Amieva Clemente contesta que ha hablado con ellos de la documentación, pero que físicamente no se les ha trasladado. La Presidenta le replica que la documentación entregada al grupo político no debería ser facilitada a personas ajenas a la Corporación.

En segundo lugar, la Presidenta pregunta si cuando se lea la pregunta se va a dar la información de los nombres y apellidos que constan en la misma, y quiere dejar constancia que en la documentación facilitada por el Ayuntamiento a Elkarrekin Podemos se eliminaron los nombres y apellidos, por lo que son datos que no fueron suministrados por el ente local. Añade que si se da información de los nombres y apellidos será responsabilidad de la Concejala que lea la pregunta, lo cual podría ser constitutivo de infracción de la Ley de protección de datos personales, y por ende una vulneración de los derechos de intimidad de las personas.

Paula Amieva Clemente considera la advertencia de la Presidenta fuera de tono y una amenaza, indicando que su pregunta fue registrada el 5 de diciembre por lo que ha habido 11 días para que le traslade estas impresiones sin haberlo hecho. Indica que su grupo dirige a la presente comisión las consultas trasladadas por Harribide a efectos de que se aclare la realidad de los hechos denunciados, y que si se indican los nombres y apellidos de las personas es porque tienen el consentimiento de las

Akta 5/2019

dela. Jarraian, osorik irakurri du idatziz egindako galdera.

Batzordeburuak erantzun dio galdera informazio-batzordeari zuzendu zaiola eta, beraz, organo horretan erantzun behar dela, eta ez lehenago, eta ostean erantzun egin dio.

Lehenengo galderari erantzun dio 10/2015 Legearen 53.12 artikularen arau-hauste administratiboa izango litzatekeela.

Bigarren galderari dagokionez, lehen adierazitako arau-hauste administratiboa dela adierazi du.

Hirugarren galderari erantzun dio esanez Udaltzaingoko agenteek pertsonak identifikatzea zentzuzkoa eta legitimoa izan zela eta beste dokumentu batzuen bidez identifikatzea ere onargarria izan daitekeen arren, horrek ez duela eragozten poliziak pertsonen identifikazioa poliziaren datu-baseekin egiaztatzea.

Laugarren galderari, berriz, ezetz erantzun dio.

Bosgarren galderari erantzun dio esanez lekualdatuko zituztela jakinarazi zitzaizela.

Seigarren galderari erantzun dio polizia-akta egin zela eta zehapen-espeditatea hasteari ekingo zaiola.

Paula Amieva Clemente andreak Udaltzaingoak eta Polizia Nazionalak emandako informazioaren artean kontraesana dagoela adierazi du; izan ere, lehenengoak Polizia Nazionalari egindako deia identifikazio arrazoiengatik izan zela adierazten badu ere, bigarrenak dio Udaltzaingoa informazio-eskaera pertsonen atzerriartasunagatiko bere gabeko auzirik ote zuten jakiteko izan zela.

mismas. A continuación da lectura íntegra a la pregunta formulada por escrito.

La Presidenta le replica que la pregunta ha sido dirigida a la comisión informativa por lo que se debe dar respuesta en dicho órgano, y no antes, y procede a contestar a la misma.

A la primera pregunta contesta que se trataría de una infracción administrativa de la Ley 10/2015, artículo 53.12

A la segunda pregunta indica que es la infracción administrativa antes indicada.

A la tercera pregunta replica que la identificación de las personas por los agentes de la policía local fue razonable y legítima, y que si bien la identificación a través de otros documentos puede ser aceptable, ello no es óbice para que la policía compruebe la identificación de las personas con bases de datos policiales.

A la cuarta pregunta responde que no.

A la quinta pregunta contesta que se les informó que iban a ser trasladados.

A sexta pregunta replica que se levantó acta policial y que está pendiente la incoación de expediente sancionador.

Paula Amieva Clemente traslada la contradicción existente entre la información ofrecida por la Policía Local y la Policía Nacional, ya que si bien la primera indica que la llamada a la Policía Nacional fue por razones de identificación, la segunda señala que la solicitud de información de la Policía Local fue referente a si las personas tenían causas pendientes de extranjería.

Akta 5/2019

Batzordeburuak Udaltzaingoak azaroaren 7an izandako jarduketari buruz batzorde honetan luze-zabal emandako erantzuna aipatu du, eta adierazi du ez dela gai horiek argitzeko foroa.

Baieztapen horri dagokionez Paula Amieva Clemente andreak erantzun du Udaltzaingoko zuzendariak batzorde honen aurreko saioan emandako informazioaren eta Polizia Nazionalaren bertsioaren arteko kontraesanen aurrean beharrezkotzat jotzen duela azalpenak ematea. Eta jasota utzi nahi du berak ez duela inola ere adierazi bere taldeak helarazten duen galderan proposatzen den identifikazio-modua hobea denik, ez eta Udaltzaingoak egindako identifikazio-modua legitimoa ez denik ere, baizik eta polizia kidegoen artean agertutako kontraesanen aurrean beharrezkoa dela argitzea, eta azalpen hori ez dela eman.

Bere aldetik, Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak adierazi du EH Bildu taldea Harribiderek harremanetan jarri zela, eta Elkarrekin Podemos egindako galderak ere bere egiten dituela, eta adierazi du baietz, Informazio-Batzordea dela Udaltzaingoaren jarduerak aztertzeko eta kontrolatzeko foro egokia. Halaber, galdetu du ea Bihotz Alai plazan, kaltetutako pertsonen ordez bertan zeudenak bera eta lagun bat izan balira ea Udaltzaingoak euren jatorriari buruzko galdetuko ote zien, eta esan du seguruenik ezetz. Esan du bere iritziz Udaltzaingoak pertsonen euren jatorrizko lekuaz galdetu ziela magrebtarrak zirelako, eta Udaltzaingoko zuzendariaren erantzuna "*jende mota horri*" buruzkoa izan zela, bai eta agenteen adierazpenak ere: "*Berdin dio joan nahi duzun ala ez, ez baduzu nahi derrigorrez joango zara*", eta esaldi horiek bere iritzia berresten dutela. Hala eta guztiz ere, adierazi du horrelako gertaerek

La Presidenta se remite a la respuesta ya dada en esta comisión de forma extensa respecto a la actuación de la Policía Local el 7 de noviembre, indicando que no es el foro para dilucidar estas cuestiones.

A esta afirmación Paula Amieva Clemente contesta que ante las contradicciones entre la información ofrecida por el Director de la Policía Local en la sesión anterior de la presente comisión y la Policía Nacional considera necesario que se den explicaciones. Y quiere dejar constancia que en ningún caso ella ha señalado que la forma de identificación que se propone en la pregunta que traslada su grupo sea mejor, ni que la forma de identificación efectuada por la Policía Local no haya sido legítima, sino únicamente manifiesta que ante las contradicciones puestas de manifiesto entre los diferentes cuerpos de policía es necesaria una aclaración, sin que se haya ofrecido la misma.

Por su parte Ibon Rodriguez Larrinaga indica que EH Bildu se puso en contacto con Harribide y que hace suyas también las preguntas planteadas por Elkarrekin Podemos, señalando que la Comisión Informativa sí es el foro adecuado para analizar y controlar las actuaciones de la Policía Local. Asimismo, traslada la pregunta de si en la plaza Bihotz Alai, en lugar de las personas afectadas hubieran estado él mismo y un amigo, la Policía Local les hubiera preguntado su lugar de procedencia, y se teme que no. A su juicio la Policía Local preguntó a las personas por su lugar de origen porque eran magrebíes, y la respuesta del Director de la Policía Local refiriéndose a "*este tipo de gente*", así como las manifestaciones de los agentes "*da igual si quieres ir, si no quieres irás por la fuerza*" le confirman su opinión. Con todo señala que este tipo de incidentes deben servir para mejorar y sugiere que se ofrezca formación

hobetzeko balio behar dutela, eta polizia agenteei xenofobiari buruzko nahitaezko prestakuntza eskaintzea iradoki du, gaur egun eskaintzen ez bazaie. Ildo horretatik, Udaltzaingoak xenofobiaren arloko prestakuntzarik jasotzen duen galdetu du, genero indarkeriaren arloko prestakuntzarekin batera.

Batzordeburuak erantzun du udaltzainek prestakuntza integrala jasotzen dutela bai Polizia Akademian bai udalean bertan. Eta nabarmendu du oso larria iruditzen zaiola korporazioko kide batek gertakarien bertsio bat sinestea eta herritarren segurtasuneko agenteen jarduna xenofobotzat jotzea; izan ere, auzokoez alkohola kontsumitzeagatik eta zarata egiteagatik jarritako kexa baten ondorioz esku hartu zuten, bertan zeuden pertsonak identifikatuz, haien etnia edo kolorea gorabehera, eta poliziaren datu baseetara joz, ohi den bezala.

Berretsi du batzordea ez dela galderan azaldu nahi diren gaiak argitzeko foroa. Informazio-Batzordean, Udaltzaingoaren jarduteko moduaren azalpena ematen da, jarduketa kalifikatu gabe, eta argi utzi nahi du Udaltzaingoa ez zela bere eginkizunetan gehiegikeriaz aritu, eta bere esku hartzea amaitzeko errugabetasun-presuntzioa defendatu du.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak berriz ere adierazi du kezkatuta dagoela identifikatutako pertsonen eta Udaltzaingoaren bertsioaren artean kontraesana dagoelako, eta beharrezkoa dela argitzea, eta azpimarratu du jarduerak xenofobia-kutsua duela eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen duela arlo horretan prestakuntza ematea polizia-zerbitzua hobetzeko.

Asunción Olaeta Pérez de Mendiola andreak adierazi duenez, bere iritziz identifikatutako

obligatoria a los agentes policiales en materia de xenofobia, si es que en la actualidad no se ofrece. En este sentido, pregunta si la Policía Local recibe formación en materia de xenofobia, junto a la formación en violencia de género.

La Presidenta responde que los agentes de la Policía Local reciben formación integral tanto en la Academia de Policía como en el propio Ayuntamiento. Y destaca que le parece muy grave que un corporativo se crea una versión de los hechos y califique de xenófoba la actuación de los agentes de la seguridad ciudadana, que intervinieron por una queja vecinal por consumo de alcohol y ruidos, procediendo a identificar a las personas que había en el lugar, con independencia de su etnia o color, y acudiendo a bases policiales como habitualmente se hace.

Reitera que la comisión no es el foro para dilucidar las cuestiones que se pretenden en la pregunta. En la comisión informativa se de explicación de la forma de actuar de la Policía Local, sin que se califique la actuación, y quiere dejar claro que la Policía Local no se extralimitó en sus funciones, finalizando su intervención defendiendo la presunción de inocencia.

Ibon Rodriguez Larrinaga reitera su preocupación por la contradicción entre la versión de las personas identificadas y de la Policía Local, siendo necesaria una aclaración, e insiste en que la actuación tiene tintes de xenofobia, por lo que considera necesaria una formación en esta materia para mejorar el servicio policial.

Asunción Olaeta Pérez de Mendiola manifiesta que si bien no le merece mayor

pertsonen adierazpenak udaltzaingoaren deklarazioak baino sinesgarritasun handiagoa merezi ez badu ere, poliziaren jardunean beste batzuetan arrazoi xenofoboengatik kezarik egon den galdetu du.

Batzordeburuak erantzun du ez dagoela jasota kezarik egon denik.

Bere aldetik, Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak adierazi du ez dakiela beste batzuetan gertatu den, baina berak jakin nahi duena dela ea poliziaren jarduna xenofoboa izan den, neurri egokiak har daitezzen.

Batzordeburuak amaitutzat jo du puntu hau, gaia behar bezala eztabaidatu dela iritzita.

3.5.- EH BILDU: USATEGI KAFETEGIKO SUTEARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKATUZ. SARRERA ERREGISTROA: 39687.

Cristina Zamora Chuquiguanga andreak galdera irakurri du, eta erantsi du badakiela eraikin hori kalean bizi diren pertsonentzako babesleku gisa erabili dela, eta galdetu du ea pertsona horiek identifikatu diren eta horientzako proposamenik badagoen.

Batzordeburuak erantzun dio idatziz aurkeztutako galderak ez dutela zerikusirik batzordean ahoz egindako galderekin. Idatziz egindako galderari dagokienez, PPK berak aurkeztutako galderan emandako erantzunei lotzen zaie. Gaineratu du ikerketa-eginbideak egin direla gertakariak argitzearen ondoretarako eta ondorioztatu dela, antza denez, petardoak bota zituztela eraikinaren barrura eta horren ondorioz barruko objektuak erretzen hasi zirela. Idatziz egindako beste bi galderari dagokienez adierazi du Udal Eraikinen arduradunak Lurralde Batzordean erantzun diela.

credibilidad la manifestación de las personas identificadas que la declaración de la policía local, pregunta si ha habido quejas por motivos xenófobos en la actuación policial en otras ocasiones.

La Presidenta contesta que no hay constancia de quejas en este sentido.

Por su parte Ibon Rodriguez Larrinaga señala que no sabe si ha sucedido en otras ocasiones, pero lo que él quiere saber es si la actuación policial ha sido xenófoba para que se tomen las medidas oportunas.

La Presidenta da por finalizada este punto por considerar suficientemente debatido el asunto.

3.5.- EH BILDU: SOLICITANDO INFORMACIÓN SOBRE EL INCENDIO DE LA CAFETERIA USATEGI. REGISTRO DE ENTRADA: 39687.

Cristina Zamora Chuquiguanga da lectura a la pregunta, y añade que le consta que ese edificio ha sido utilizado como refugio para personas que viven en la calle y pregunta si se ha identificado a esas personas y existen propuestas para ellas.

La Presidenta le contesta que las preguntas presentadas por escrito no tienen nada que ver con las preguntas hechas oralmente en la comisión. Respecto a las preguntas planteadas por escrito, se remite a las respuestas dadas en la pregunta presentada por los mismos hechos por el PP. Añade que se han llevado a cabo diligencias de investigación para esclarecer los hechos, concluyendo que al parecer se debieron tirar petardos al interior del inmueble iniciándose en consecuencia la combustión de los objetos del interior. Respecto a las otras dos preguntas planteadas por escrito, indica que el responsable de Edificios Municipales ya ha

Akta 5/2019

respondido a las mismas en la Comisión de Territorio.

Era berean, erantsi du ez duela daturik eraikinean gaua igaro duten pertsonak egoteari edo ez egoteari buruz eta, nolana ere, egoera horretan dauden pertsonak identifikatuz gero, haien eskura egongo lirakeela udaleko gizarte zerbitzuen baliabideak. Hala ere, adierazi du Gizarte Kohesioari buruzko Informazio Batzordean xehetasun handiagoz erantzun ahal izango zaiola gai horri.

Asimismo, añade que no tiene datos respecto a si ha habido personas pernoctando en el edificio, y que en todo caso si se identificaran personas en esa situación estarían a su disposición los recursos de los servicios sociales municipales. Si bien señala que en su caso se podrá dar respuesta a esta cuestión con mayor detalle en la Comisión informativa de Cohesión Social.

3.6.- EH BILDU: GALDERA, EUSKADIN ELIKAGAIK ALFERRIK GALTZEAREN AURKAKO ASTEARI BURUZKOA. SARRERA ERREGISTROA: 39608.

3.6.- EH BILDU: PREGUNTA RELATIVA A LA SEMANA CONTRA EL DESPERDICIO DE ALIMENTOS EN EUSKADI. REGISTRO DE ENTRADA: 39608.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak galdera irakurri du.

Ibon Rodriguez Larrinaga procede a dar lectura a la pregunta.

Batzordeburuak erantzun du Gizarte Kohesioaren Informazio-Batzordean erantzungo dela, ez baita batzorde honen eremu materialari buruzko galdera. Honako Batzorde honi dagokionez, adierazi du oso programa zehatza eta zeharkakoa baino ez dagoela.

La Presidenta contesta que se responderá en la Comisión informativa de Cohesión Social, por no ser la pregunta relativa al ámbito material de la presente comisión. En lo que se refiere a la presente comisión indica que solamente hay un programa muy concreto y colateral.

Iñigo Urkitza Yañez jaunak Ekonomia Sustatzeko Arloan enpresa sustatzaileei zuzendutako elikadura osasungarriko programa bat baino ez dagoela adierazi du. Hala ere, erantzuna asegarria ez bada, hurrengo batzordean erantzungo da.

Iñigo Urkitza Yañez indica que en el Área de Promoción Económica únicamente hay un programa de alimentación saludable dirigido a empresas promotoras, no obstante, si la respuesta no es satisfactoria se responderá en la siguiente comisión.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak esan du harrিতuta dagoela planteatutako gaia ez delako ezagutzen, Eudel Udalen Elkartek sustatutako ekimen bat denean.

Ibon Rodriguez Larrinaga muestra su extrañeza por la falta de conocimiento de la cuestión planteada cuando se trata una iniciativa auspiciada por la Asociación de Municipios Eudel.

Akta 5/2019

Eta ostean ahozko galderen tarteari ekin zaio:

- F. Javier Elorza Hormaeche jaunak Muxikebarrin interpretatu behar zen kontzertu batean izandako desadostasunari buruz galdetu du; azkenean kontzertua San Nikolas elizan egin zen.

Batzordeburuak adierazi du ez duela horren berri, baina ez dagokiola batzorde honi horri buruzko informazioa ematea; nolahi ere, Kultur Etxean edo Musika Eskolan egin beharko du galdera.

• Keltsek galdetu du ea herritarren beste galderarik dagoen.

Herritar baten galdera bat dagoenez, batzordeburuak jakinarazi du, araudiaren arabera, 5 minutu izango dituela esku hartzeko, eta galdera Informazio-Batzordeko batzordeburuari edo gobernu taldeari zuzendu beharko zaiola.

- Herritarrak bere burua Danel Marin Urrutxurtu moduan identifikatu du, Harribide Fundazioaren zerbitzu juridikoa burutzen ari den abokatua. Udaltzaingoaren jarduerak, hala nola azaroaren 7an egindakoak, etorkizunean ez errepikatzeko eskatu du. Adierazi du Harribide Fundazioak Elkarrekin Podemos taldearen bidez egindako galdera zehatzei Batzordeko batzordeburuak emandako erantzunekin ase gabe geratu dela, eta adierazi du kontraesanak daudela eragindako pertsonen bertsioen eta Udaltzaingoaren bertsioen artean. Adierazi du ez duela zalantzan jarriko pertsonen lekualdaketa, baina oso argi utzi nahi du hala Tarek Moussaoui nola Abderrazzak Bousikhani Bihotz Alai plazatik etxerako bidean pasatzen ari zirela, eta horrelako jarduerak ez dutela laguntzen ez bizikidetzan ez udaltzaingoaren irudian.

A continuación se abre el turno de preguntas verbales:

- F. Javier Elorza Hormaeche pregunta sobre el desacuerdo habido con ocasión de un concierto que iba a ser interpretado en Muxikebarri y finalmente tuvo lugar en la iglesia de San Nicolás.

La Presidenta manifiesta que no tiene noticia de ello, si bien no es materia que corresponda informar a esta comisión, en todo caso, la pregunta la deberá formular al Aula de Cultura o Escuela de Música.

• Keltse pregunta si hay alguna pregunta de la ciudadanía.

Al haber una pregunta de un ciudadano, la Presidenta informa que de conformidad con la normativa dispondrá de 5 minutos para su intervención y que la pregunta deberá ser dirigida a la Presidenta de la Comisión informativa o al equipo de gobierno.

- El ciudadano se identifica como Danel Marin Urrutxurtu, letrado en ejercicio del servicio jurídico de la Fundación Harribide. Realiza el ruego de que actuaciones de la Policía Local como las llevadas a cabo el 7 de noviembre no se repitan en el futuro. Muestra su insatisfacción por las respuestas dadas por la Presidenta de la Comisión a las preguntas concretas trasladadas por Harribide a través de Elkarrekin Podemos y pone de manifiesto las contradicciones existentes entre las versiones de las personas afectadas y la de la policía local. Señala que no va a entrar a cuestionar el traslado de las personas, si bien quiere dejar por sentado que tanto Tarek Moussaoui como Abderrazzak Bousikhani pasaban por la plaza Bihotz alai camino a casa y que actuaciones de este tipo no favorecen la convivencia ni la imagen de la policía local.

Batzordeburuak mahai gainean jarri du eskaera, eta adierazi du aintzat hartuko dela.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat eman du egun horretako 12:40 direnean, horrela, bere emaitzarekin akta hau luzatu da, nirekin batera Batzordeburu andreak ere sinatu duela, hori guztia nik, idazkari naizenak, ziurtatzen dut.

Akta 5/2019
La Presidenta pone sobre la mesa el ruego y señala que se tendrá en consideración.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 12:40 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, la Secretaria, doy fe.